

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“N-240 errepidea, 16,700 kilometrotik 19,900 kilometrora, egokitzeko trazadura proiektua”-k eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda zabaltzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak, 2021eko abenduaren 27an, 816/2021 Foru Agindua onartu du. Hona hemen horren testua:

“Handitzea N-240 errepidea 16,700 kilometro puntutik 19,900 kilometro puntura egokitzeko trazadura proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda. Haiek okupatu beharra deklaratzeko. Presako prozedura. Kreditu atxikipena.

Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 3ko 716/2016 Erabakiaren bidez, N-240 errepidea 16,700 kilometro puntutik 19,900 kilometro puntura egokitzeko trazadura proiektua gauzatzeko eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onetsi zen.

Nahitazko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan araututako presako prozedura bidez izapidetu zen desjabetze espedientea.

Errepide Zerbitzuak txostena eman zuen 2021eko urriaren 1ean, eta honako hau adierazi zuen:

N-240 errepidea 16,700 kilometro puntutik 19,900 kilometro puntura egokitzeko trazadura proiekturako hasiera eman zaion 2014/10 desjabetzapen espedienteari dagokionez, Miguel Ortiz de Zárate Castañares jaunaren idazkia jaso da. Bertan azaltzen duenez, proiektua gauzatzeko obrak direla-eta, Legutioko 1 poligonoko 1110 lurzatia, bere titulartasunekoa, zati batean okupatu da, eta, horren ondorioz, kalte ordaina eskatzen du.

Gaia aztertu ondoren, jakinarazten da lurzati horretan benetan izandako okupazioa berrikusi dela, eta, eskatzaileak ondo adierazten duen bezala, hasieran desjabetutako lursailaren azalera gehiago okupatu dela. Beraz, beharrezkoa da lursail horren desjabetzapena handitzea.

Era berean, egiaztatu da hasiera batean aurreikusitako desjabetzea ez dela nahikoa izan proiektuak hasiera batean eragindako beste lurzati batzuetan, eta desjabetzea handitu egin behar izan dela egun errepideak eta haren arauzko jabari publikoko eremuak okupatzen dituzten lursailak erabili ahal izateko, gauzatzeko obrak amaitu ondoren.

Lurzati horietako bat Zigoitiko 4 poligonoko 400 lurzatia da. Lurzati horren errentariak 2021eko maiatzaren 5eko erregistro data duen idazkia aurkeztu zuen, zeinaren bidez eskatzen baitzuen, besteak beste, mugarrak behar bezala jartzeko lurzati horretan, hau da, aipatutako desjabetze espedientean 106 zenbakiarekin ageri den finkan. Mugarri horiek txosten honetan aurreikusten den desjabetze handitzea egin ondoren adierazten den lekuan jarriko dira, bai lurzati honetan, zein aipatzen diren gainerako lurzatietan.

Hona hemen zein finkatan handitu den desjabetzea eta behin betiko okupazioaren (BO) azalera zenbatean handitu den horietako bakoitzean:

FINKA	POLIGONOA	LURZATIA	UDALERRIA	BO AZALERA
89/300	1	1110	Legutio	31 m ²
102/300	5	1060	Zigoitia	281 m ²
106/100	4	400	Zigoitia	580 m ²

Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 15. artikulua eta hura garatzen duen arautegiaren 15. artikulua okupazioa handitzea eta hedatzea aurreikusten dute, eta okupatu beharreko ondasunen artean sartu daitezke ezinbestekoak direnak aurreikus daitezkeen kasuan kasuko obra handitzeetarako edo helburuetarako, desjabetzea dakarren helburu, obra edo zerbitzuari loturik geratzen direla iritziz.

Era berean, adierazi behar da presaz okupatzeko aukera proiektuari ez ezik, desjabetzea handitzeari ere aplikatzen zaiola, eta, beraz, bidezkoa da eragindako ondasun eta eskubideen desjabetzea handitzeko izapideak presako prozeduraren bidez egitea.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak aurrekontu kreditua dagoela adierazteko idatzitako txostenak eta Desjabetze Atalak egindakoak aztertuta, eta Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko diputatua naizen aldetik dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau:

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Handitzea N-240 errepidea 16,700 kilometro puntutik 19,900 kilometro puntura egokitzeko trazadura proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda, eranskinean zehaztatutakoaren arabera.

Bigarrena. Adieraztea handitzeak eragindako ondasunak okupatu eta eskuratu beharra dagoela, desjabetzeko.

Hirugarrena. Izapidetzea, premiazko prozedura bidez, ondasun eta eskubide zerrendaren handitzea. Ondasun eta eskubide horiek eranskinean adierazten dira.

Laugarrena. 3.313,88 euro esleitzea, eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko, 2022rako aurrekontuaren 21.3.22 taldeko "Desjabetzeak" izeneko 50106.5300.6000002 partidaren kontura (zorpekin erreferentzia: 105-184/000.21.3.22.

Bosgarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordain dezala eragindako finkei dagokien balio justuaren kopurua. Zenbateko hori Desjabetze Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero ordainduko da. Ordainketa hori aipatutako lerro eta zorpekin erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epeetan.

Administrazio bideari amaiera ematen dion foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, lehenago, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera."

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsuaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Legutio eta Zigoitiako Udaletzeko lokaletan ager daitezzen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 1a

Bide Azpiegituren zuzendaria
CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ

Bide Azplegituren eta
Mugikortasunaren Saila
Departamento de Infraestructuras
Vías y Movilidad

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

N-240 ERREPIDEA, 16.700 KILOMETROTIK 19.900 KILOMETRORA, EGOIKITZEKO TRAZAZURA PROIEKTUA
PROYECTO DE TRAZADO DEL ACONDICIONAMIENTO DE LA CARRETERA N-240 ENTRE EL P.K. 16.700 Y EL P.K. 19.900
ERANSKINA/ANEXO

Esp./Ejpte. 2014/10-H

FINKAREN ZK.	TITULARREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALA	APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA		EGUNA	ORDUA
		POLIGONOA	LURSAILA			BEHIN-BETIKOA	SUPERFICIE AFECTADA		
Nº FINCA	NOMBRE DEL PROPIETARIO	DATOS CATASTRALES		AYUNTAMIENTO	APROVECHAMIENTO	SUPERFICIE AFECTADA		DIA	HORA
102/300	EHEVARRIA GANZABAL, JESUS	5	1060	ZIGOITIA	LEHORREKO LABOREA/ CULTIVO SECANO	281		2/9/22	10:00
106/100	BENGOA URETA, JOSE ANTONIO	4	400	ZIGOITIA	LEHORREKO LABOREA/ CULTIVO	580		2/9/22	10:45
89/000	ORTIZ DE ZARATE CASTANARES, RUBINO ORTIZ DE ZARATE CASTANARES, MIGUEL	1	1110	LEGUTIO	ETZELABAREA/ ERIALA PASTOS	31		2/9/22	13:00